

noaue

Txokoaldeko “zulo beltza” salatu dute bertako bizilagunek

“Denok gara odol emaile potentzialak”

Bilgune Feminista: “Erauntsi feminista eragin behar dugu”



**Usurbilgo Gazte Mugimendua
azalberritu egin da**

G Auto Guria s.l



Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Turquía



NOAOA
BIDAIAK

BIDAIK TALDEAN

943 373 613

IRTEERA EKAINEN
 LASARTE ORIAK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus **noaoa.eus**

KAZETARI BAT KONTRATATZEKO NOAUA! KULTUR ELKARTEAN

KAZETARI BAT KONTRATATZEKO LAN DEIALDIA NOAUA! KULTUR ELKARTEAN

PROFILA:

- Kazetaritza lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere).
- EGA edo baliokidea.
- Gida-baimena.
- Komunikatzaile ona eta teknologia berrietan trebatua izatea.
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.

URDAIRA

Sagardotegia

Abenduak 15, LARUNBATA
BARRIKOTEA
20.00h Urdairan

Aginaga 943 37 26 91



Albisteak iruditan

Ezkutaketa Topaketak familia ugari batu zituen



“Ederki ibili ginen igandean herriko kaxkoko txoko ezberdinetan ezkututzen”, Udarregi Ikastolak halaxe idatzi zuen biharamunean, sare sozial batean. “Ez dakigu norik pasa zuen hobeto; haurrek edo gurasoek? Mila esker parte hartzaile guztiei!”. Zirimarak antolatutako Lehen Ezkutaketa Topaketa familia argazki honekin amaitu zen.

Laburrean

Errigoraren kutxen banaketa

Azaroaren 29tik abenduaren 4ra, tarte horretan jasoko ditugu kutxak NOAUA!n. Jasotakoan eskatzaileekin hartuemanetan jarriko gara. Produktuon bila zatoztenean egin beharko dituzue ordainketak.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, euskal preso eta iheslarien etxeratzeari eskatzeko elkarretaratzea ostiralean (azaroak 30), 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.

Datorren astean ez da NOAUA!rik izango

Abenduaren 7ko astean ez da NOAUA!rik izango. Abenduan zehar, bi zenbaki argitaratuko ditugu; hilaren 14ean eta 21ean. Oharrik baldin baduzue NOAUA!ra ekarri edo emailaz bidali: erredakzioa@noaua.eus

noaua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeka.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Luis Aranalde

Gotzainen “mea culpa”

Bukatu berria dut “ez duzu abusatuko” liburua. Bertan azterzen dituzte Alberto Barandiaranek, Iñigo Astizek eta Miren Rubiok pederastia kasuak Euskal Herriko elizan.

“Iritsi da garaia, diote, gauzak esateko eta gertaerei bere izenez deitzeko. Eliza barruko pederastia kasuez ari gara, apaiz eta fraideek gaztetxoei egindako sexu-abusuez. Mundu anglosaxoian lehertu ziren halako eskandaluak lehenik, baina olatua mundu osoan barrena hedatu da, baita gure artean ere”. Lan bikaina eta beharrezkoa egin dute kazetari hauek. Niri egin zidaten elkarriketatxoa ere badakar liburuak.

Zorionez atzo (azaroaren 20a) Espainiako Gotzainen Batzar Nagusiak aitortu zuen bere “mea culpa” eta agindu aldi berean hemendik aurrera pederastiari buruz zero tolerantzia agertuko duela. Bazen garaia, alajaina! Orain arte pederastak babestu besterik ez zuela egin, baina, amaitu dela jarrera lotsagarri hori. Badakizue Munillarekin ez nato-

rrela bat arlo gehienetan, izan ere Apezpikuen Batzarrean ildo kontserbadoreenekin egiten du bat askotan, baina, bai Kaxuxen arazoan eta oraingoan asmatu egin duela esango nuke. Honela dio: “berandu eta gaizki ibili gara. Egia da gizarteak berak ez duela fin jokatu gai honetan, ez dituela gehienetan abusuak salatu, tapatu baizik; baina, justizia eta maitasuna hots egiten dugunon erruduntasunak plus bat dauka”. Beste une batean dio: “arazoa ez da zelibatoa, ez apaizgoa, ezta familia ere, gure barne desoreketan dago arazoa, gure barne heldutasun faltan eta elizgizonei dagokienez autoritate moralaren gehiegizko erabileran”.

Espainiako Elizak, Frantziako Aita Santuak bultzatuta zalantzarik gabe, iragarri zuen atzo bukatu dela orain arte agertu duen jarrera epela bere baitan gertatu diren abusu-ekiko; hemendik aurrera beste politika bat erabiliko duela agindu du, askoz ausartagoa. Orain arte baloiak kanpora botatz, arazoa ez zela zenbait lurraldetakoa bezain handia esaten zuen. Oraingoan serio hartu du eta horren adierazgarri Ricardo

Blazquezek egindako hitzaldia Gotzainen Batzar nagusiaren aurrean: parte handi bat abusuaren gaiari eskaini zion. “Elizak garbi aitortzen ditu abusu klase guztiak eta erabaki sendo bat hartu du gehiegikeria horiek erauzteko edo desagertu arazteko. Bukatu dira orain arteko arduragabekeria eta gardentasun eza guztiak”.

Hartutako neurriak: lehenbizi, adituen komisio bat sortuko dute Elizak orain arte zituen protokoloak aldatzeko, eguneratzeko. Bigarren, pederastia prebenitzeko neurri sendoak hartu. (Ez du aurreikusten hala ere Frantzia eta Alemanian jarri dituzten zenbait ikerketa protokolo aurreko hamarkadetan gertatu diren abusuak argitzea). Hirugarren, Apaiztegietan eta elizaren etengabeko formazio prozesuan heziketa ahalik eta onena bermatuko dugu. Behar-beharrezkoa da heziketa afektibo sexual egokia eskaintzea ere, dimentsio guztiak landuko dituen.

Baina esan beharra dago Elizak agertu duen jarrera baikor hori pederastiaren gainean, prentsari zor diola. Kazetariak agertu zuten Elizaren garai

bateko jokabide makur eta koldarra... *Spotlight* izeneko ikerketa taldeak aurrera eramane zuen lan horri esker frogatuta geratu zen Eliza katolikoak isildu eta tapatu egin zituela hainbat hamarkadaz abusu horiek guztiak. Pulitzer sari preziatua jaso zuten kazetariak eta lan horretan oinarritutako pelikula bi Oskar.

Ebanjelioan badago esaldi beldurgarri bat jorratu duen gai honi buruz. Ari da Jesus haurren gainean hitz egiten eta begira nola bukatzen duen bere hitzalditxoa: “haur hauetako bat eskandalizatzen duenak hobe luke errotarri bat leporik lotuko baliote eta itsaso sakonean urperatuko balute”. Ebanjelioak duen esaldi gogorrenetakoa da. Ez dago zigor zorrotzagorik.

Inoiz ez da beranduegi jokabide okerrak zuzentzeko, eta Elizarentzat ere ez. Ea Elizak berreskuratzen duen lehen zeukan sinesgarritasun apurra. Horretarako derri gorrezkoa du abusatzaileak salatu eta epailearen aurrera eramatea eta abusatuei babesa ematea.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo

Erabilitako jostailuak, abenduko azokarako prestatzen hasi

Etxean izan baina erabiltzen ez dugun jostailuak erabilerari bestelako erabilera bat eman diezaioke beste norbaitek. Esku aldaketa hori egiten laguntzen du Hitz Aho Udaregi Ikastolako Guraso Elkar- teak urtero antolatzen duen Jostailu Erabilien Azokak.

Aurtengo edizioa, abendua- ren 15ean ospatuko da, 11:00-

13:00 artean frontoian.

Jostailu bilketa

Abenduaren 13an eta 14ean egingo da, 17:00-19:00 artean Sutezik erakusketa aretoan. Azoka amaieran bertan gertatzen direnak “Ez itxi begiak” Elkarrekin jasoko ditu. Piladun jostailuek funtzionatzen dutela erakutsi beharko da.

Bete beharreko baldintzak

Ekimen honetan parte hartze- ko baldintza hauek bete behar dira:

- Jostailuek osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.
- Bilketa egunetan jasotzen dena musu-truk emango da. Horren truke, nahi izanez

gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batengatik aldatzeko.

- Azoka egunean jostailuak trukatzeko, 8 urtetik beherakoek, arduradun batekin parte hartu beharko dute.
- Azokara eramaten diren DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

Txokoaldeko “zulo beltza”

Usurbil jasagarri eta seguruaren alde lan egiteko sortu zuten urte hasieran “Puntu beltzik ez” herri plataforma. Besteak beste, oraindik egun konponbide beharrean diren Usurbil eta Aginaga zeharkatzen duen N-634 errepideko hainbat puntu beltz seinالاتu zituzten. Puntu beltzotako bat duzue ondoko irudian. Aginaga erdigunetik nahiz Usurbil aldetik N-634 errepidean barrena Txokoaldera jaisteko dagoen sarbidea. Komunikazio puntu oso garrantzitsua txokoalderantz, baina Txokoalde bertako bizilagun batzuk NOAUA!raren helarazi duten ondoko idatzian azaltzen duten moduan, “zulo beltza”.

Puntu beltza, edo zulo beltza?

“Urriaren 19an argitaratuko NOAUA! aldizkarian, Aginagan dagoen puntu beltz bati buruzko albiste bat topatu dezakegu. Albiste honen hel-



Puntu beltzotako bat duzue ondoko irudian. Aginaga erdigunetik nahiz Usurbil aldetik N-634 errepidean barrena Txokoaldera jaisteko dagoen sarbidea.

burua, Aginagan aurkitu dezakegun beste puntu beltz bat azaltzea da. Puntu hau, hain da beltza, non zulo beltza deitzea izango genuke. Puntu hau, N-634tik Txokoaldera joateko hartu behar den irteera da. Puntu hau, hain da garrantzitsua, non funtzio ezberdinak betetzen dituen. Auzorako dugun sarrera nagusia izateaz gain, bertakoek dugun autobus geltokia ere bada, norabidez

aldatzeko aukera bikaina ere bai, eta gutxi ez balitz, gasolina ere bota dezakegu “zulo” beltz honetan.

Zulo beltz hau hobeto ulertu nahi baduzue, ariketa siple bat proposatzen dizuegu. Har ezazue autobusa Oriorako norabidean, eta jaitsi zaitezte Galar-diko autobus geltokian. Behin autobusetik jaistean, paretaren kontra ondo itsatsi beharko genuke, inork ez baitaki auto-

busaren atzetik kotxeren bat sartu daitekeen gasolindegian. Lehenengo oztipoa pasata, bi aukera izango genituzke gure aurrean. Alde batetik, aukera errazena hautatu dezakegu eta korrika saio batean errepidea pasa kotxerik ez badago. Beste aldetik, beste nonbait gurutzatzea erabaki dezakegu eta beraz, gertuen dagoen zebra bidera jo beharko genuke, alegia Aginagako elkartaren parean. Azken finean, Txokoaldera joateko ez dago zebra biderik, ezta abiadura moteltzeko marrarik, ezta autobus geltoki estalkirik. Errepide erdiko marrari ere zatiren bat falta zaio, aurreratzea baimenduta baitago “rekta” (zuzen?) honetan ... zulo beltzak irentsiko zituen hauek denak. Oraindik sasoian bagaude, errepidea zeharkatzea ez da horren besterako arazo bat, azken finean, nahikoa izango genuke adineko pertsonen eta umeen autobusa ez hartzearekin ...”.

Ika-mika

Abenduaren 6an, Euskal Errepublika aldarrikatzera!

EH Bildurentzat hurrengo abenduaren 6a ez da jaieguna izango, eta inposatutako jaiegun hori aldarrikapen egun bihurtzeko deia egin nahi diegu herri honetako subiranistei. Hala, abenduaren 6an, Espainiako Konstituzioaren 40. urteurrenean, hitzordua finkatu dugu: eguerdiko 12:00etan Bilbon, Plaza Eliptikan.

40 urte joan dira Espainiako Konstituzioa onartu eta indarrean jarri zutenetik eta gogorarazi behar dugu Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan ez zuela behar besteko onarpenik izan konstituzio horrek. Izan ere, duela 40 urteko euskal jendarteak argi eta garbi adierazi zuen Espainiako Konstituzioa ez dela berea. Argi esan zuen ez zuela bere egin nahi 78ko Erregimena egonkortzea helburu

baino ez zeukan konstituzioa, aurreko erregimenaren aurpegi garbiketa baino ez zelako.

40 urte joan dira orduz geroztik, eta 78ko Erregimenak –eta beraz, Espainiako Konstituzioak– konpontzeke utzi zituen arazo politikoak kalean eta instituzioetan jarraitzen dute. Horren lekuko da, esate baterako, hautetsontziak jarri eta herritarrei beren etorkizun politikoaren jabe izan eta Kataluniako Errepublika sortu nahi ote duten galdetzeagatik Espainiako Estatua herri katalanari ematen ari zaion neurrigabeko erantzun basatia.

Euskal Herrian ere milaka eta milaka gara geure etorkizuna erabakitzeko eskubide demokratikoa daukagula uste dugunak. Gehiengo politiko eta sozial hori behin baino gehia-

gotan agertu da azken urteotan, besteak beste, Gure Esku Dagok deitutako mobilizazio erraldoietan edota herri-galdekietan. Hain zuzen, baldintza eta egoera politiko eta sozial guztiek ekarri dute 78an aurreko garbiketa behar zutela erabaki zuten indar politikoek orain moztzeko guztiak kentzea eta eskura dituzten baliabide eta tresna guztiekin beren erregimena defendatzea, hau da, Espainiaren batasun hautsezina defendatzea.

Horregatik, gure herriari Espainiako Konstituzioa inposatu ziotenetik 40 urte betetzen direnean, Espainiako Konstituzioa gure herriaren askatasun nahiak lotzeko giltzarrapo baino ez dela sinesten duten euskal herritarrei Bilboko kaleetara ateratzeko gonbita egiten die

EH Bilduk. Herri honen erabakitzeko eskubidearen eta bere egikaritzearen alde dagoen gehiengo politiko eta soziala da giltzarrapo hori irekitzeko gai den giltza bakarra. Euskal Errepublika libre eta duinean bizi nahi duten euskal herritar guztiok hitzordu garrantzitsua dugu abenduaren 6ko eguerdian, Bilboko plaza eliptikoan.

Argi utz diezaiozun munduari Euskal Herriak ez duela ezer ospatzeko eta bai asko irabazteko, hau da, herri askea, herri burujabea eta herri justua.

Eskualdetik autobusa antolatuta da, eta, beraz, ohiko lekuetan duzue izena emateko aukera. Ordutegia zehaztuko da izen ematearen arabera.

Usurbilgo EHBildu

“Emakume iraultzaile kubatarrak hasieratik egon ziren borrokaren lehen lerroan”

Tadamun elkarteak Palestinaren aldeko elkarretaratzea antolatu zuen azaroaren 16an. Orain, ikusentzunezko baten proiektziora joateko gonbitea luzatu digute: *Cubanas, mujeres en Revolución* dokumentala eskainiko dute ostiral honetan Sutein. Hitzorduaren harira, Maria Torrellas zuzendaria elkarrizketatu dugu.

NOAUA! Cubanas, mujeres en Revolución dokumentala ez da atzera begira eginiko ariketa bat. Gaurko begiekin, iragana gogora ekarri eta etorkizuna proiektatzen duen ikusentzunezko bat dela esan daiteke, ezta?

Maria Torrellas. Hasierako helburua hau zen, atzo eta gaurko iraultzaileei buruz hitz egitea. Beti kontatu izan nahi dut ondokoa: emakume iraultzaile kubatarrek hasieratik egon zirela borrokaren lehen lerroan. Hori oso argi nuen.

Duela 15 urtetik hona ari naiz emakume kubatarren egoera aztertzen. Arlo ezberdinetan erreparatu dut. Eta bereziki iraultza garaiko kontuetan: alfabetizazioa, osasuna, lan-mundua... Elkarrizketak egiteaz gain, Kubari buruzko dokumental ugari ikusi ditut. Film asko daude eta oso onak. Eta horiek ere aztertu ditut. Horrela konturatu naiz zer nolako arazoak gauditu behar izan dituzten emakumeek, hain gizonezkoak diren lan ar-



Maria Torrellas zuzendu duen dokumentala Sutein ikusi ahal izango dugu. Ostiral honetan, azaroak 30, 22:15ean.

MARIA TORRELLAS

“Kapitalismoarekin alderatuta, lorpen maila handiak erdietsi dituzte Kuban. Soldata berdintasuna, abortu legea, heziketa sexuala... Politikan ere partehartze-maila handia dute: %48”

loetan bereziki.

Aspaldiko irudiak ere berreskuratu dituzu.

Aurreikusia ez nuen zerbait gertatu zitzaigun filmazio egutetan. Elkarrizketatuek Celia

Sánchez, Haydée Santamaría edota Vilma Espín iraultzaileen inguruko aipamenak egin zizkidaten eta elkarrizketatuen lekukotza horiek jaso ahala joan ginen dokumentalaren edizioa antolatzen. Monica Simonsini editorearekin antolatu nuen filmaren dinamika, testigantzen arabera denboran aurrera eta atzera eginez.

Ahalduntze hitza bogan da hemen, gure artean. Zure dokumentalean ez da aipatu ere egin. Deigarria egin zait. Kuban, Iraultza garaitik ari direlako horretan etengabe akaso?

Bere garaian erabiliko zuten, baina orain ez dute behar.

Kuban ez da erabiltzen, beste maila batean daudelako. Lasten 60 urte beteko ditu iraultzak, eta Emakume Kubatarren Federazioak ere 60 urte beteko ditu. Kapitalismoarekin alderatuta, lorpen maila handiak erdietsi dituzte, dokumentalean esaten den bezala. Soldata berdintasuna, abortu legea, heziketa sexuala... Politikan ere partehartze-maila handia dute: %48. Mendebaldeko herrialdeek ez dute kopuru hori gauditzen. Rwandak bakarrik. Kuban, emakumeak zuzendaritza karguetan daude. Ahalduntze sozialaren ondorioz, emakumeek posizionamendu hori lortu dute.

“Etengabeko iraultzan jarraitzen dute”

NOAUA! Zure dokumentalean bada atentzioa deitzen duen beste elementu bat. Iraultzaz hitz egiterakoan, orainaldian mintzo dira denak. Iraultza ez da iraganeko zerbait, bizirik

dagoen indar bat baizik.

Maria Torrellas. “Zer da iraultza zuretzat?”, hori galdetu nien elkarrizketatu denei. Eta dokumentalean argi eta garbi ikusten da eurek iraultzan se-

gitzen dutela. Iraultzak dena eman zien baina, horretaz gain, etengabeko iraultzan jarraitzen dute. Bidean arazoak topatu arren –*período especial* garaia adibidez–, lorpen horiek

denak ez zituzten galdu.

Dokumentalarekin hasi aurretik banekien iraultza oso presente zutela baina egin dizkiguten adierazpenekin uste hori berretsi egin didate.

“Berdintasunaren alde ahalegin handiak egin diren arren, oraindik lana dago egiteko”

NOAUA! LGBTBI+ mugimenduaren berri ere eman duzu. “Kolore guztietako iraultza” aldarrikatzen dute manifestazio batean. Hango hedabideetan, zer nolako ikusgarritasuna dute horrelako mugimenduek? Aintzat hartzen al dira?

Maria Torrellas. LGBTBI+ mugimenduak iaz Habanan egin zuen martxan izan nintzen eta jendetsua izan zen. Hori ere borroka kulturalaren parte da. Luze eta zabal aztertu dugu gai hau dokumentalean. 80ko hamarkadan, borroka honek une zailak ezagutu zituen, munduko beste toki askotan bezala. Homofobia handia zegoen eta sexu-dibertsitatea ez zen ulertzen. Kuban, urte asko daramatzate borroka honetan. Film hau horren isla da, azken batean. Nola aldatu estereotipoak, nola aldatu sinboloak. Begira, Kubak eta Latinoamerikak duela 500 urteko inbasioa jasateaz gain, Eliza Katolikoaren alderdirik erreakzionarioena jasan behar izan dute. Haien herentziak hor daude. Iraultzarekin berdintasunaren alde ahalegin handiak egin diren arren, oraindik lana dago egiteko.

Lengoaia ere emakumeak diskriminatzen dituela zioen Fidel Castrok. Eztabaida hori berri samarra da gure inguru hauetan. Kuban orde, badi-rudi sexismoa eta bazterketa soziala askoz lehenagotik hasi zirela lantzen. Hala al da?

Informazio asko batu dut horren inguruan eta ez dut dokumentalean bere osotasunean islatu. Dena den, Isabel Moya Revista Mujeres-eko zuzendariaren adierazpenak jasotzea garrantzitsua zela iruditu zitzaidan, lengoaiak ere baztertzeko duelako. Lengoaian ez bagaude ez gara existitzen. Kubako



Eskubitara, Maria Torrellas. Elkarrizketa ugarirekin osatu du *Cubanas, mujeres en Revolución* izeneko dokumentala.

MARIA TORRELLAS

“Giza ezberdintasun denak errespetatu behar dira, benetako berdintasun bat lortu nahi bada.

Hori elkarrizketu guztiek nabarmendu zidaten”

emakumeek borroka kultural horretan jarraitzen dute. Ez da

gai erraza. Konplexua da. Euskal Herrian ere feminismoak hori defendatzen du. Euskaraz ez dago sexismorik, hizkuntzak ez duelako genero bereizkeriarik egiten, baina erdaraz bai, eta oso zaila da horri aurre egitea. Hori da gure erronka.

Arraza bada bazterketa eragiten duen beste elementu bat. Jazarpen elementu bat izan da historikoki.

Kultura mailako borroka horretan, estereotipoen aurkako guda ere arrazari lotuta dago. Zulaika Romayk dioen bezala, oraindik badira mulataren inguruko aurreritziak, balorazioak, txisteak... Iraultza sozialista batekin bat ez da tozen jarrerak.

Aurrera begira, zeintzuk dira kubatar emakumeek dituzten erronka handienak?

Isabel Moyak dioen bezala, iraultza kulturalari dagozkion borrokak. Rosa Luxemburg-ek zioen iraultza bat egin behar dugula ezarrita dauden rolak ez daitezen botere-harremanetan betikotu. Gizonezkoek gizonezko izate hutsagatik ez dezaten emakumeekiko botere rol bat eskuratu. Gizartea binarioa da eta kultura patriarkala denean dago. Baina giza ezberdintasun denak errespetatu behar dira, benetako berdintasun bat lortu nahi bada. Hori izan zen elkarrizketu guztiek nabarmendu zidatena.

“Kubako emakumeek itxaropena transmititzen digute”

NOAUA! Zein da dokumentalak zugan utzi duen ikasgairik garrantzitsuenak?

Maria Torrellas. Askok izan dira. Kubako emakumeak hainbeste mirestuta ere, lan honekin zera deskubritu dut: Kubako emakumeak maitasun eta elkartasun mezu dira. Bereziki gure askatasunaren aldeko borrokan ari garen herrientzat. Eta emakumeentzat, zer esanik ez. Nor bere inguruan, arazo larriei aurre

egiten ari gara. Eta emakume pobreak gara larritasun hori gehien pairatzen dugunok. Kubako emakumeek orde, itxaropena transmititzen digute. Animoak ematen dizkigute. Eta gainera, iraultzan pentsatzen jarraitu behar dugula gogorarazten digute. Soilik iraultza baten bidez aldatu ditzakegula demokrazia burges hauek. Demokrazia hauekin preso gaude. Inoiz ez dugu berdintasunik lor-

tuko horrela. Soilik iraultza baten bidez aldatuko dugu patriarkala eta inperialista den kapitalismoa. Pobreenak ere erabaki ahalmen guneetan egon gaitezen, berdintasunean eta justizia sozialean oinarritzen den gizarte bat lor dezagun. Kapitalismoa hain modu beldurgarrian garatzen ari den moduan, feministek eta gainontzeko mugimendu sozialek agenda iraultzaile bat eduki behar dugu.

“Denok gara odol hartzaile potentzialak; izan gaitezen emaile errealak!”

Abenduaren 8a gorritz markatua dago. Elkartasunez. Usurbilgo odol emaileek haien egun handia ospatzen dute bazkari baten bueltan. Aurten Artzabalen bilduko dira. Izen ematea zabalik dago jada. Abenduaren 1a baino lehen izena eman telefono zenbaki hauetako batera deituta: 619 12 56 44 (Mari Jose Korta), 610 681 563 (Maite Salaberri) eta 943 36 31 02 / 688 887 537 (Agustina Arizti). Prezioa: 33 euro.



“2017an eta 2018an odol emaileen elkarteak esperotakoak baino 75 emaile gutxiago izan ditugu”. Argazkia: Facebook.

Usurbilgo Odol Emaileen Elkartetik haien jarduera eza-gutarazi eta usurbildarron laguntza eskatu nahi digute, denok bizi ahal izateko ezinbestekoa dugun odola ematen hasi edo segitzeko. “Denok gara hartzaile potentzialak; izan gaitezen emaile errealak!”.

Aipatu elkartetik NOAUA!ri adierazi diotenez, “normaltzat hartzen dugu istripu, ebakuntza edo gaixotasunen baten ondorioz odola behar izanez gero, medikuek hura eskura izatea. Odol-erreserbak agorrezinak izango balira bezala! Eskubidetzat jotzen dugu, baina oraindik behintzat odola ez da laborategian ekoiztu daitekeen ondarea; denon zainetan dagoenak egiten du posible besteentzako bizi-aukera hori”, ohartarazi dute Usurbilgo Odol Emaileen Elkartetik.

Odol emateak, beherantz
Kezka agertzen dute, odola

ODOL EMAILEAK

“22-34 urte arteko odol-emaile kopuruan nabaritzen da murrizketa. Usurbilgo datuek ere joera bera islatzen dute”

beharrezkoa izan arren, odol emate kopuruak behera egin duelako azken urteotan Gipuzkoan. “Batez ere 22-34 urte arteko odol-emaile kopuruan nabaritzen da murrizketa hori. Usurbilgo datuek ere joera bera islatzen dute, eta esaterako, 2017an eta 2018an odol emaileen elkarteak esperotakoak baino 75 emaile gutxiago izan ditugu”, zehaztu dute.

Horregatik usurbildarrak odola ematera animatzen gai-

tuzte. “Odol ematea 7-8 minututan egiten da, aurreko mediku kontsulta eta ondorengo mokadutxo kontuan hartuta, 30 bat minutu behar dira. Gizartearekiko elkartasuna azalduz, Usurbilgo anbulategian egiten ditugun odol-emate egunetan bertaratzeraz gonbidatzen zaituztegu. Aurten, 143 usurbildarrek 253 emanaldi osatu dituzte. Milesker guztioi!”.

Odola emateak urtean sei konpromiso izatera lotzen gaitu. Urtarrila, martxoa, maiatza, uztaila, iraila eta azaroko lehen astelehenetan, 18:00-20:30 artean Usurbilgo anbulatoriora joatera. Gogoan izan, “18 urtetik gora izan eta osasun baldintza batzuk betez gero, edonor izan gaitzekemaile”.

Odola emateko bete beharreko baldintzak

- 18-65 urte artean izatea.
- 50 kilotik gora pisatzea.
- 12 urte baino lehenago hepatitisa izan, kolesterol maila altua izan, baraurik egon ez edota ohiko botikaren bat hartzen baduzu ere, odola eman dezakezu.
- Emakumezkoek urtean gehienez hiru aldiz eman dezakete odola, gizonezkoek gehienez lautan. Odol emate baten eta hurrengoaren artean, gutxienez bi hilabeteko tartea igarotzen utzi beharra dago.

Informazio gehiago:

donantes2punto0.eus/es/
943 31 70 91

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus



San Tomas eguna ospatzeko deialdia



Noaua!k baseritar guztiak
gonbidatu nahi ditu

Herritarren sagardoa dastatzeko eta
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.
Aurten lehiaketa berritua izango dugu.



Abenduaren
igande goizez **16an**

Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketa parte hartuko dute.

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:


**AZAROAREN 26tik AZAROAREN 30era
ABENDUAREN 10tik 13ra (lau egunok barne)**

- Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu gure bulegora **(943 360 321)**

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:

- **1. saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€ + kopa**
- **3. saria: 50€**



noaua

“Euskaraldiak herriaren indarra eta erakundeen babesa, prestigioa uztartuko ditu; funtsezkoa da hori”

EHUko Magisteritza fakultatean irakasle da Pello Jauregi (Pasaia, 59 urte). Lasarte-Orian arrakasta handia izan zuen Ahobizi eta Belarriprest formularen sortzaileetakoa da. Erabilera, hizkuntza ohiturak... ulermenaren logika indartuz etorriko direla dio. Baita Euskaraldia oso garrantzitsua izango dela ere, baina garbi utziz: “ondoren ere lanari jarraipena eman beharko zaio”.

NOAUA! Nola sortzen da Ahobizi eta Belarriprest ekimen hura? Nolatan jotzen dute zuzana Lasarte-Oriako Euskara zerbitzutik?

Pello Jauregi. Lau urtez behin ‘Euskararen Maratoia’ egiten da Lasarte-Orian. Maratoiak beti izan du erronka kutsu nabarmena. Urtetan erronka nagusia izan da 48 orduz jarraian euskara etengabe entzutea. Lortzen da, eta lortzen den heinean, erronka desagertzen da, errutina bilakatzen da. Zer behar da? Beste erronka bat sortzea. Jauzi kualitatiboa behar zen hizkuntzaren erabilerran.

Errutina hori aipatzen duzula, egon izan da halako konformismoa euskararen aldeko ekimenekin?



Pello Jauregi, EHUKo unibertsitatean duen bulegoan. ‘Ahobizi’ eta ‘Belarriprest’ formularen sortzaileetako bat da.

PELLO JAUREGI

“Metodologi honek erakutsi du euskararen erabilera handitu eta mantendu egin daitekeela”

Euskal Herrian ekintza asko egiten dira, gehienek jarraera alorrean dute eragina, go-

goan, komunitate sentitzeko nahi horretan eragiten dute. Euskalgintzako hausnarketa errekorretea honakoa da: erabilera datuek geldirik gaudela adierazten dute, ez dugula aurrera egiten, zerbait egin behar dela... Kezka handia dago horren inguruan, eta maratoia, Korrika eta antzeko ekimenak onak badira ere,

beste zerbait gehiago behar da, horiekin erabilerak ez duelako gora egiten. Klabe gehiago ukitu behar dira. Jarrera ez da nahikoa. Lasarte-Orian ere antzera hausnartu genuen.

Nolakoa izan zen hausnarketa hori?

Ez nintzen hausnarketa prozesu horretan egon, baina esaten ari naizen ondorioak atera zituzten: erronkaren izpirituari berriz heldu beharra, jarreraren logikatik erabileraren logikara jauzi egitea... orduan niregana jo zuten. Ni, artean, Soziolinguistika Klusterrean ari nintzen, Aldahitz proiektuan, zuzendari gisa, lan munduan euskararen erabilera sustatzeko metodologia batzuk prestatzen. 2010ean hasi ginen proiektua garatzen. Urteotan prestatu ditugun metodologietako bat Eusle metodologia izan da. Metodologia honek erakutsi du, euskararen erabilera handitu eta mantendu egin daitekeela. Beraz, bagenuen tresna bat, euskararen erabilera astintzeko eta mantentzeko, eta ondo dokumentatua, gainera. Deitu ninduten Lasarte-Oriako euskara zerbitzutik, ea Eusle metodologia herri mailan aplikatu zitekeen, lanaz besteko kontestu batean.

“Badago jende asko hitz egiteko gaitasunik ez duena, baina ulertu, ulertzen duena”

NOAUA! Zer du Euskaraldiak Eusle metodologiatik?

Pello Jauregi. Erabilera hitzak kolektiboa terminoa darama lotuta ezinbestean. Eta kolektibo bateko gutxieneko kopurua beti da bi. Nik zerbait egin behar dut, baina zuk ere bai: elkarriketa sortzeko ‘gu’ behar da.

Hizkuntza ohiturak, jokaerak, biren arteko zerbait dira. Abiapuntu hori jarrita, herri batean gutxieneko unitatea euskaraz dakien Ahobizi bat da, eta gutxienez, ulertzen duen beste pertsona bat: Belarriprest. Bi figura osatu genituen, kolektibotasun hori emateko. Hori zen

euskaraz hitz egin ahal izateko gutxieneko egoera. Nik, euskaraz jakinda, hitz egin ahal izateko, besteak ulertu egin behar du. Ulertzen ez badu, alferrik, jai dago. Solaskideak ulertzeaz gain euskaraz egiten badu, are erosoago niretzat, baina ez da beharrezkoa berak euskaraz

hitz egitea, nik euskaraz hitz egiteko. Badago jende asko, agian, hitz egiteko gaitasunik ez duena, baina ulertu, ulertzen duena. Ahobizi eta Belarriprest figurekin ilustratu nahi genuen zein den euskarazko komunikaziorako gutxieneko egoera.

“Baditugu tresnak euskararen erabileran aurrerapausoak emateko”

NOAUA! Nola jakinarazi kolektibo horretako bi kideei, euskaraz erabil zezaketela euren artean?

Pello Jauregi. Ahobizi eta Belarriprest txapa bana erakutsiz lortzen da hori. Alegia, ulertzen duenak (Belarriprest), hitz egin nahi duenari (Ahobizi), ulertzen duela, edo uler diezaiokeela erakustea, jarrera ona duela erakutsiz. Baldintza egokiak daudela ikusiz gero, euskaldun gehien-gehienek euskaraz hasten dira hitz egiten.

Beldurra dugu, euskaldunok, elkarriketa bat euskaraz abiatzeko. Zergatik?

Edukazio txarrekoa dela pentsatzen dugulako, adibidez. Zenbatetan gertatzen da, bat euskaraz hitz egiten hastea, eta besteak euskara ulertzea bai, baina hitz egiteko gaitasunik ez edukitzea: A ereduaren ikasi duelako, edo aspaldi ez duelako hitz egiten... mila kasu. Orduan, automatikoki, gaztelaniara jotzen dugu, ustez egoera behartzen ari garelako, besteak gaizki hartuko duelako eta beste... Aldiz, ulertzen duenak hitz egin duenari jakinarazten badio, gai dela, horma psikologiko hori lasaitu egiten da, bigundu, eta konfiantza sortzen da, jada ez dugulako egoera behartu izanaren sentsazioa.

Nola sortu zenituzten bi figura horiek, bi izen kurioso horiek?

Eusle metodologian bagenuen bi termino: bata eusle, euskarari eusten diona. Eta bestea uzle, aurrekoari hala jokatzeko uzten diona. Iku si genuen kalerako ez zirela hitz errazak, fonetikoki-eta nahasketa ekar zezaketenak. Buelta batzuk eman eta Ahobizi eta Belarriprest kontzeptuak atera ziren. Belarriprest belarrimotz-ekin lotu nuen.



“Uste baino jende gehiagok du egun belarria euskaraz ulertzeko prest. Hortik, beraz, Belarriprest”.

PELLO JAUREGI

“Ahobizi eta Belarriprest txapa bana erakutsiz zera lortzen da: ulertzen duenak (Belarriprest), hitz egin nahi duenari (Ahobizi), ulertzen duela, edo uler diezaiokeela erakustea, jarrera ona duela erakutsiz. Baldintza egokiak daudela ikusiz gero, euskaldun gehien-gehienek euskaraz hasten dira hitz egiten”

Belarriprest kontzeptua etorri zitzaigun lehendabizi. Belarrimotz kontzeptu historiko gutxiesgarria gogoan harturik, ulermen eza eta euskarazko komunikaziorako blokeoarena zetorkigun gogora, eta guk kontrako mezua zabaldu nahi genuen: positiboa, euskararen ulermenean sozialki egin ditugun aurrerapen handiei balioa emango ziona. Uste baino jende gehiagok du egun belarria euskaraz ulertzeko prest. Hor-

tik, beraz, Belarriprest. Gero, belarritik ahoa etorri zen. Eta aho horrek “bizia” izan behar zuen, hizkuntzaren “bizitza” erabilera bera baita. Hortik, Ahobizi.

Lasarte-Oriako esperimentazioaren osteko datuak oso onak izan ziren. Ekimenean parte hartu zutenen erabilera %21,6 hazi zen, eta hiru hilabete geroago, erabilera hori puntu pare bat bakarrik murriztu. Bai, datuak oso onak dira. Nola bait, adierazten dute baditugula tresnak euskararen erabileran aurrerapausoak emateko. Partaidetza datuak ere oso handiak dira. Ekimenean Lasarte-Oriako biztanleen %12k parte hartu zuen. Kopuru handia da, bi mila lagunetik gora. 1.000 Belarriprest, eta 1.000 Ahobizi. Erronkak sei aste iraun zuen. Ahobiziek txandaka astebetez eusten zioten beren zereginari, eta gainerako bost asteetan Belarriprest gisa aritzen ziren. Belarriprestak sei asteetan aritu ziren beren zeregin hutsean.

“Euskaraldiak komunitate handiaren zentzua eraikiko du”

NOAUA! Zer hausnarketa eragiten dizu Euskaraldiak?

Pello Jauregi. Oso inportantea izango da. Instituzioak eta herrigintza esku hartuta joatea funtsezkoa da, gure indarra txikia delako eta batuta egin behar delako bidea.

Orain arte ekimenak herri herri egin dira. Ez dago gaizki, baina horrek sakabaketa eragiten du. Indarrak batu behar dira eta denontzako aterpe komun bat eraiki. Ni nire herrian Ahobizi banaiz, aldameneko herrira noanean ere antzeko babes sentitu behar dut, eta lana hirugarren herrian egiten badut, han ere nire praktika soziolinguistikoa onartuta izateko giroa behar dut.

Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo den ekimena da. Horrek guztiak komunitate handiaren zentzua eraikiko du, eta babes sentsazio ikaragarria sortu.

Etumeta AEK euskaltegia ere Euskaraldi betean

Euskaraldi betean da baita Etumeta AEK euskaltegia. Eta ondoko irudiko ikasle taldea. Ezkerretik hasita lehenengoa, argazki honen egile eta duela hiru urtetik euskaltegiko ikasle Lurdes Hueta elkarriketatu dugu. Belarriprest rola hautatu du 11 egunotarako.

Zer moduz euskaltegia?

Lurdes Hueta: Oso gustura, ikasteko betiko gogotsu. Usurbila bizitzera etorri nintzenean ez nekien ezer. Usurbilgo frontoian ikasi nuen, seme-alabekin txikiak zirenean. Lana utzitakoan, denbora nuenez, seme-alabek animatuta hasi nintzen euskaltegian. Poliki poliki, euskaraz hitz egiteko ez dut lotsarik.

Zer moduzko giroa duzue?

Oraintxe bertan 8 ikasle inguru gara. Oso gustura nabil. Lehen, ni baino maila altuagoa zuen jendearekin nengoen. Orain gutxi gorabehera nire mailakoein nago, askoz hobeto.

Euskara egunerokoan erabiltzen duzula heldu zara Euska-



Etumeta AEK euskaltegia ere Euskaraldian ari da partehartzen. Argazkia: Lurdes Hueta.

LURDES HUETA

*“Poliki poliki,
euskaraz hitz egiteko
ez dut lotsarik”*

raldira ezta?

Bai. Beti dut euskaraz hitz egiteko gogo. Etxean seme-alabekin, euskaraz hitz egiten beti. Nire seme-alabek oso ondo hitz egiten dute euskaraz, bere mundua guztiz euskalduna da. Batzuetan gertatzen zait, zerbait garrantzitsua esatea asko kostatu eta beti erdaraz amaitzen dut. Eta hori aldatu nahi dut.

Hori da Euskaraldiarekin aldatu nahi duzuna?

Hori da. Zortea dut, familiak

euskaraz hitz egiten du. Familia bazkarian biltzen garenean, lehen beti ni nengoenean erdaraz hitz egiten bukatzen genuen. Hori aldatu nahi nuen. Aldatu dut egunotan. Euskaraldiko lehen eguna, afari batekin hasi genuen. Denok ginen txaparekin, euskaraz hitz egiten, oso gustura.

Belarriprestek berari euskaraz hitz egitea nahi izaten du. Zuk bezala.

Bai, beti. Donostiara denda batera joan eta hango langileak ia euskaraz egitea nahi nuen esan zidan. Euskaraz erantzun nion. Hori niretzat oso pozgarria da. Usurbilen oso erraza da euskaraz hitz egitea eta ikastea ere.

Euskaraldiko hamaika egunek aldaketarik ekarriko dutela uste al duzu?

Nik uste baietz. Aurreko asteburuan, jendea txapa jarrita hitz egiteko prest da. Egia da, Usurbil oso euskalduna da. Baina beste herri batera joanda, ez da erraza. Durangokoa naiz. Nire hango ingurunea ez da hain euskalduna. Ni beti saiatzen naiz euskaraz, familiarekin ezin dut aritu. Ahizpa adibidez duela lau zapabost urte hasi zen euskaltegian euskara ikasten eta biok beti euskaraz hitz egiten dugu. Biok euskaldun berriak gara. Ez genuen pentsatuko sekula guk biok euskaraz hitz egiten amaituko genuenik. Baina hori da nire helburua, euskara erabiltzea.

1.329 usurbildarrek eman dute izena Euskaraldian

Aurreikuspen guztiak gainditu dira. Ia behin betiko datuak eskutan, 1.329 herritarrek eman dute izena Euskaraldian Usurbilen. Gehienak, 1.110, Ahobizi rolean ariko dira parte hartzen egunotan, gainerako 219ak Belarriprest gisa.

196.000 lagun Euskal Herri osoan, haietatik 84.000 Gipuzkoan, hilabeteotan herriz herri lan egin duen bolondres sareari esker. Hitz gutxitan, Euskaraldia sustatzen ari den herritarren batzordeak azaroaren 23an frontoian ospaturiko hasiera jaialdian eginiko

agerraldian nabarmentzen zenez, “ikaragarria da Euskal Herriak Euskaraldiari eman dion erantzuna”.

Bai Euskal Herriak eta baita noski, Usurbilek ere. Ekimenak jasotako babesa eskertu zuten. 1.300etik gora Ahobizi eta Belarriprestekin batera, 40 eragileek baino gehiagok bat egin baitute ekimenarekin, Euskal Herrian 180 entitateek osaturiko sustatzailerak. “Entitate horien artean daude euskararen gizarte eragileak, erakunde publikoak, enpresak eta bestelako gizarte eragileak”. Usurbilen, “kultur elkarteak, kirol elkarteak, ikas-

tetxeak, auzo elkarteak, euskalgintzako elkarteak, alderdi politikoak, sindikatuak...”.

“Handia den zerbait egitera goazi”

Orain herritarren txanda dela azpimarratzen zuten. “Atxikimendu handi hau herritarrek ariketa sozialean murgiltzeko akuilu izango da. Izan ere, ariketaren oinarria ahobizi eta belarriprest rola hautatu duten partaideek beraien eguneroko bizitzan harremanetan inertzia apurtu eta hizkuntza-ohiturak euskararantz ekartzea da. Horregatik, partaide guztiei

hartutako konpromisoa ahalik eta ondoen betetzea eskatzen diegu; eta era berean, ariketari ilusioz eta sendo heltzeko deia egin nahi diegu”.

Gogorarazi zutenez, “handia den zerbait egitera goazi! Ekin lanari! Goza ditzagun unez une 11 egun hauek!”. Goizeko 8:00etan udal brigadako langileek jaurtitako 11 suziridun txupinazoaren ostean, arratsaldean Orbeldi Dantza Taldeak Euskaraldiko abestiarekin eginkoreografia plazaratuz, Errebal taldekoekin dantzatzu eta taloak janez hasi zuten usurbildarrek Euskaraldia.

Bertsozaleen bilgunea sortu da Zubietan

A skorentzako pintxo-poterako tartea diren ostegun iluntzeetan bertsoarako astia hartzen dute Zubietan. Ez diote alferrik jarri izena, “20:00etan bertso eskola”. Ordu horretan haien eguneroko bizimoduarekin hautsi eta lagun artean biltzen dira astero duela pare bat urtetik, bertsoen eta afari eder baten bueltan. “Ez dakigu zer den bertsoa afariaren aitzakia, edo afaria bertsoarena. Baina batak bestea gabe ez du funtzionatzen”, adierazi dio NOAUA!ri Jon Andoni Arroyok.

10 bat lagun biltzen dira, zubietarrak, edota Lasarteko bertso eskolako kide batzuk baita. “Jaio berria da taldea, ilusioz betea”, adierazi du Urtzi Alberdik. Taldean parte hartzen hasi berria da Eneko Garmendia, “euskaran sakontzeko gogoz. Euskal kulturaren inguruan sormena sustatzeko ilusioarekin. Zure grin bera duen jendea dagoela ikusi eta grin hau partekatzea gustagarria da”.

Guk jakin gabe, Zubietako jai egitarauan izan genuen haien berri estreinakoz. Santioen baitan Sagardo Eguna eta Puntu Txapelketa antolatzen hasi zirenean. Zubietan zegoen bertsozaleasuna neurtzeko test modukoa izan zen ekimen hura, eta hortxe kokatzen dute gerora sortu zuten bertso eskolaren abiapuntua.

Talde gisa, puntu txapelketa eta Sagardo Eguna antolatzen segi dute. Aurreko otsailean ere Santa Ageda bezperan koplak abestera irteko ohitura ere berreskuratu zuten. Hortxe batu zen trikitiarekin taldera Pello Aiestaran.

Doinu berriak barneratzen, erritmekin jolasean, puntuka, bat batekotasuna lantzen, trikitiaren laguntzaz bertso zaharrak abesten... dihardu tal-



Argazkian Eneko Garmendia Olarra, Urtzi Alberdi, Jon Andoni Arroyo eta Pello Aiestaran.

JON ANDONI ARROYO

“Belarriprest txapa ikusita, edozein euskara maila entzuteko prest nagoela ohartuko dira”

deak. “Euskararen ikuspegitik oasi bat da, lasaigarria. Nahiko nuke Euskal Herri osoa gune hau bezalakoa izatea”, dio Enekok.

Euskaraldia, “halabeharrez, beharrezkoa”

Euskaraldiaren atarian elkarriketatu ditugu. Zubietarre-

babes zabala eman diote Euskaraldiari. Baita bertso eskolakoe ere. Ahobizi eta Belarriprest figuren inguruan sortu den eztabaida taldera heldu da. “Iniziatiba polita da eta parte hartzeko gogotsu” agertu zen Euskaraldiaren atarian Aiestaran. Ahobizi rola hautatu du berak. Belarriprest rola Urtzik eta Jon Andonik. “Ahobizi berezkoa behar dugu, berez egin behar dugu lehen hitza euskaraz. Horregatik Belarriprest izan behar dugu. Nigana datorrenari euskaraz hitz egiteko aukera eman. Ahobizi izanez gero agian ez litzateke nirekin euskaraz hasiko eta hala bai. Laguntzeko aukera ematen

du”, irizten dio Alberdik. Euskaraldia, “halabeharrez, beharrezkoa” dela dio.

Txapa soinean

Txapa soinean eramatea lagungarri izango zaiola dio Alberdik, jendaurreko lana baitu, elektrikaria da. Jon Andoni bezala. Gasolindegia batean lan egiten du. “Lantokian euskara erabiltzeko joera dut. Euskaldun bezala ezagutzen ez naue-nak, Belarriprest txapa ikusita edozein euskara maila entzuteko prest nagoela ohartuko da”, adierazi du Arroyok.

Espero ez duenak euskaraz egingo diola uste dute. “Beti egiten dut lehen hitza euskaraz. Saiatzeak merezi du, askotan sorpresa oso politak hartzen dituzu eta oso harro sentitzen zara pauso hori emateagatik”, dio Enekok. Eskaera argia luzatzen du. “Euskaraldia ez dadila 11 egunetan geratu”. Euskaldunak euskaldunekin erdaraz hitz egiteko dagoen joera badela nabarmenduta, gaineratzen duenez, “Euskaraldiak balioko badu horretaz jabetu eta kontzientziak esnatzeko, orduan ideia oso polita da”.

Ildo beretik, Urtzik ere hor-mak haustera gonbidatzen du. “Muga horiek hautsi eta goazen euskaraz hastera!”.



Argazki honen bitartez, zubietarrek ere atxikimendua erakutsi nahi diote Euskaraldiari.

Euskaraldia Aginagan

Bi antzezlanekin ospatuko dute Euskaraldiko azken asteburua Aginagan.

Abenduak 1, larunbata

■ 17:30 “Pupu eta Lore” antzezlanak Aginagako ludotekan.

■ Zehaztasunak: “Pupu eta Lore” poz-pozik daude, aitona Manolo etorri baita bisitan, bere gitarra, kantu eta jolasekin, gauza oso gutxiarekin, mundua dantzan jartzeko kapaz da aitona Manolo: musika eta irudimen apur bat. Zer besterik behar da, ba, egunerotasuna magiaz janzteko?” Sarrera: doan.

Antolatzailea: Antxomolantxa.

Abenduak 2, igandea

■ 18:00 “Ergela” antzezlanak Aginagako Eliza Zaharrean.

■ Aktoreak: Sara Cozar eta Joseba Apaolaza.

■ Sarrera: 5 euro.



Pupu eta Lore larunbat honetan arituko dira Aginagako ludotekan.

■ Zehaztasunak: “Froga psikologiko” batzuetara aurkeztu da protagonista, diru pixka bat irabazteko asmoz. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabazteko joan da, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan. Psikologo batek galdera sorta tranpatia egingo dio, gure gizon ergela urduritasunak jota utzi zoritxarreko amaierarik gerta ez dadin”.

Antolatzailea: Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak.

Aginagako taberna irekita

Euskaraldiko abenduaren 2ko “Ergela” antzezlanak ikusteko sarrerak Arrate egoitzan dituzue eskuragarri. Arrate tabernan bai. Udaz geroztik itxita egon ostean, berriki ireki dute Aginagako jubilatutako elkartearen taberna, egun aginagarren bilgune bakarrenetarikoa.

Zumarte Euskaraldiari abesten

Musikariena den Santa Zezili eguna kalejira eta kontzertu banarekin ospatu ohi du Zumarte Musika Eskolak. Aurtengo Musika Eskolaren ekimena ordea berezia izan da. Azaroaren 21ean kalejiran zehar eginiko deialdietan, eta Sutegiko kontzertu amaieran, Uxue Alberdik Euskaraldiaren harira sortutako koplak musikatu eta abestu zituzten, hastear zen 11 eguneko ekimenarekin bat eginez.

“Euskaraldirako 4 aitzakia”

antzezlanak berriz

NOAUA!ren Kulturaldiaren baitan eta Euskaraldiaren atarian, Nahia, Xabat, Eli eta Patxiren antzezlanak ikusi gabe geratu zinetenontzako hitzordu berria finkatu dugu. San Tomas Azoka egunez, abenduaren 16an, 19:00etan hasita Sutegiko auditorioan bigarren bezikoki ikusi



Uxue Alberdik sortutako koplekin eginiko kanta abestu zuten.

ahalko dugu “Euskaraldirako 4 aitzakia”. Sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue 5 eurotan, Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan. NOAUA!-ko bazkideok 3 eurotan, NOAUA!ko egoitzan soilik.

Adi bigarren galdetegiari

Ez ahaztu, Euskaraldiak 11 egunotan parte hartzen ari garen guztiongan duen eragina azter-

tuko du Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herri mailan, eta Udalaren eskariz, baita Usurbilen ere. Horretarako Euskaraldirako izena eman dugunok emailaz jasoko ditugun hiru galdetegiak bete behar ditugu. Lehenengoa azaroaren 23aren aurretik jaso genuen, bigarrena Euskaraldia amaitu eta hurrengo hamabostaldian jasoko dugu. Hirugarrena eta azkena, martxoan.

Euskaraldiaren azken txanpa

Abenduak 2, igandea

■ 15:00ak arte, pintxo berezien ibilbide gastronomikoa, Aitzaga, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirrista tabernetan. 150 euroko erosketa balearen zozketa.

Antolatzailea: Hurbilago.

Babeslea: Usurbilgo Udala.

■ 17:00 Haurrentzako zinea euskaraz: “Magiaren etxea”.

“Jabeek bertan behera utzitako katutxo bat babes bila dabil ekaitzak astindu duen egun batean”.

Sarrera: 3 euro, egunean bertan salgai Sutegin.

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Ziortza Gazte Elkarteak.

■ 18:30 Euskaraldiari bukatu emateko herriko artisten emanaldia Dema plazan.

Ondoren, Euskaraldian parte hartu duten Ahobizi eta Belarriprest guztiekin eta eragile guztiekin, argazki erraldoia aterako da.

Abenduak 3, astelehena

■ 12:10ak inguruan, Udarregi Ikastolako LH-ko ikasle eta irakasleek euskara kanta sorta bat kantatuko dute Mikel Laboa plazan (eguraldi txarrekin frontoian). Ekimen gehiago egunean zehar ikastola barruan.

■ 18:00 Euskararen Eguneko ekitaldia plazan:

-Zumarte Musika Eskolak Uxue Alberdik Euskaraldiari egindako koplak abestuko dituzte Usurbilgo Kantu taldearekin batera.

-Kantu Taldeak emanaldia eskainiko du.

-Ondoren, Euskararen Eguneko agiri irakurriko da.

Oharra: egitarau honek aldatetarik izan ditzake.

Informazio gehiago:

usurbil@euskaraldia.eus

usurbil.euskaraldia.eus

Facebook: Euskaraldia Usurbil

Twitter: @EuskaraldiaUsurbil

Youtube: Euskaraldia Usurbil

20 urtez jarraian Urdiñarberek



Aurreko asteburuan Zuberoako Urdiñarbe herrian izan ziren. Hara joandako usurbildar boskoteak 200 laguntzako afaria prestatu zuen.

Joan den asteburuan Zuberoako Urdiñarbe herrian Sagarno afaria ospatu zen. Iñaki Agirresarobek kronikatxo hau eta bi argazki bidali dizkigu.

“20 urtez jarraian Usurbilekin duen lotura beste behin ere berriua izan zen. Hara joandako usurbildar boskoteak Aldaparen gidaritzapean 200 laguntzako afaria prestatu zuen:

arrain zopa, bakailao tortilla, entsalada eta txuleta. Bertan atera zen dirua Sohütako Eperre ikastolako murgiltze batzordera bideratu zen.

Bestalde, urtarilaren 6an

goizeko 10etan, maskarada Urdiñarben hasiko da. Bertakoek dute ardura apirilaren bukaera aldera arte iraungo duen maskaradaz. Beraz, Euskal Herriko inateririk luzeena atarian dugu”.

Hauek gerra emateko daude

Abisua emanda zegoen. Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena gerra emateko gogoz zeudela aipatu genuen aurreko asteko aldizkarian. Eta halaxe izan zen. Bakean dagoena bakean utzi ikuskizunean euskara eta generoari buruzko kontu ugari hartzen dituzte hizpide. Tonu umoretsu batean aritu ziren Sutegin, ikusleen barre algarak eraginez. Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak antolatu zuen saioa bertso honekin amaitu zuten.

Usurbila etorri gera oso urduri ta pozez bete nahi genuelako herri guztia umorez lotsa guztiak kenduta eta betaurreko morez euskararekin jolastuz eta euskaratik barrez amatasuna, parranda, hilerokoa eta kleenex gure konpleju ta guzti hitz egiten dugu errez eguneroko mundua jartzeko guztiz aldrebes zuen eskuetan dago bakean utzi edo ez



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai Sutegin aritu ziren aurreko larunbatean. Bertso batekin amaitu zuten emanaldia. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

Oinarrizko lehen sorospen ikastaroa

Abenduaren 10ean, oinarrizko lehen sorospen ikastaro berri bati hasiera emango dio DYA Gipuzkoak.

Ikastaroaren iraupena aste batekoa da, abenduaren 14ra arte, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroa Muna-Lurra kalean duten egoitzan eskainiko dute. “Egunerokoan topa genitzakeen arriskurik nagusienak landuko dira, eta hauei nola aurre egin eta nola ebatzi: bihotz birika susperketa, zauriak, haustura, erredurak...”

Matrikularen kostua 40 eurokoa da. Plaza kopurua, mugatua. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943-46.46.22 telefono zenbakira.

Egun eztitsuen

Eztigintzaren sektorean, Usurbilgo Erle Eguna ez du aurkezpen handirik behar. Oihartzun handia duen ospakizuna da. 20 urteotan erreferentzia bilakatu den seinale. Beste behin ere, jende asko ibili zen frontoian eta Dema-plazan. Hamaika postu zeuden eta ezta ez zen erakusmahaietan topa zitekeen elikagai bakarra. Gazitik eta gozotik erosteko aukera ugari egon zen.

Usurbilgo Erle Egunean Euskal Herriko eztigile ugari elkartu ohi da. Hauek dira aurtengo sarituak izan diren ekoizleak:

Mila lore eztia

1. Ageda Zeberio (Segura).
2. Agustin Zabala (Hernani).

Ezti argia

1. Juan Mari Arabaolaza (Oiartzun).
2. Juan Galdeano (Hernani).

Ezti iluna

1. Igor Merino (Barakaldo).
2. Patxi Esnal (Zarautz).



Argazkian, aurtengo sarituak eta sari emaleak.

Ezti lehiaketa sonatuaz gain, beste bi sariketa egiten dira Erle Egunean. Marrazki lehiaketa batetik, gozogintza lehiaketa bestetik. Hauek dira aurtengo sarituak izan direnak:

Marrazki Lehiaketa

- 0-2 urte: Aimar Telleria Santos

(Zubietako Eskola).

- 2-3 urte: Ian (Aginagako Eskola).

- 3-4 urte: Uxune Salsamendi Uranga.

- 5-6: Lur Iriondo Martinez (Zubietako Eskola).

- 6-7 urte: Irati Etxeberria.

- 7-8 urte: Oier Agirresarobe.

- 8-9 urte: Ane Ugarte.

- 9-10 urte: Asier Collado.

- 10-11 urte: Nahia Gonzalez.

- 11-12 urte: Julene Herrador.

Gozogintza lehiaketa

- Lehen saria: Kandi Orosa.

- Bigarren saria: Eider Jauregi.

Erle Eguneako marrazki eta gozo onenak



Marrazki Lehiaketako saritu batzuk oholatzan bertan jaso zituzten sariak.



Gozogintza lehiaketan, Kandi Orosa eta Eider Jauregi nagusitu ziren.

“Erauntsi feminista eragin behar dugu”

Pasa den igandean, jende ugari batu zen #Aza-roak25 egunaren harira eginiko elkarretaratzean. ‘Injustizien gainetik saretze feminista’ aldarripean batu ziren. Manifestu bat irakurri zuten eta, besteak beste, Euskal Herrian aurten erail dituzten zazpi emakumeak ekarri zituzten gogora.

“Hau ez da justizia”

“Euskal Herrian jakin badakigu epaitegiak ez direla justizia-gune”, Bilgune Feministako kideek elkarretaratzearen amaieran adierazi zuten. “Hori erakusten dute tortura-salaketen aurrean arduragabekeriak jokatzeak eta aitortza ezak; euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespen-neurriek, Altsasukoen espetxealdiak edota Cabacas auziak”, jendaurrean irakurri zuten agirian jasota dagoenez. “Gaurkoan, (in)justizia sistema horren izaera patriarkala jarri nahi dugu jo-puntuan. Genero arau eta teoria osoa erreproduzitzen du. Sexualitatearen eta plazeraren ulkerari dagokionean, nabari da gizonen bulkada sexuala eta bortizkeria naturalizatzen dituela, emakumeoi bihurtzen gaituela pairatzen ditugun eraso sexisten erantzule eta berbiktimizatzen gaituela. Horren adibide dira *La manada* kasua, Juana Rivasen aurkako espetxe eskaera, Magrebeko marrubiaren jornalariak, komisaldegiatako bortxaketak, haurren kontrako indarkeria patriarkalaren inpunitatea... Egungo (in)justizia sistemak ez du indarkeria matxistaren erroa jotzen”.

Bilgune Feministaren esanetan, “emakumeak ez gaude prozesu judizialen erdigunean. Erasotuen –eta inguruaren– beharrak eta baldintzak kontuan hartu ordez, prozedura zurrunkarritzen dira. Ez dira kasuan kasura egokitzen. Hori dela eta, hutsuneak daude erreparazio ibilbideak eraikitzerakoan, aske bizitzeko bermeak lortzerakoan



Aurten Euskal Herrian erail dituzten zazpi emakumeak ekarri zituzten gogora igandeko elkarretaratzean.

BILGUNE FEMINISTA

“Gaurkoan, (in)justizia sistema horren izaera patriarkala jarri nahi dugu jo-puntuan”

edota babestuak sentitzean; babes legala ematean askatasuna mugatzen baitigute”.

Bestalde, askotariko indarkeziek jabetu eta elkar gurutzatzen direla aintzat hartu behar dela diote, “zehazki, biolentzia

matxistari kontra egiteko neurri eraginkorrak hartzean. Besteak beste, klase aldagaia edo arrazakeria. Izan ere, bortizkeria matxistari aurre egitea zailtzen dute emakumeek* oinarritzko beharrak asegabe izateak edo Atzerritartasun Legearen mehatxupean egoteak”.

Muineko konponbideak eman beharrean, kartzelaldiak gogortzea eskaintzen du egungo sistema judizialak. “Funtsean, harreman eredu patriarkalak

erreproduzitzen ditu (in)justizia eredu honek: gizon erasotzaileak sortu eta, indarkeria egiturazkoa ez bailitzan, gaixo mental edo basapiztia moduan zigortzen ditu. Horrela, ez da bortizkeriarekin amaitzen, ez baita bermatzen ez errepikatzea. Esandako guztiagatik, erauntsi feminista eragin behar dugu patriarkatuaren (in)justiziari aurre egiteko”.

Erasotuen erreparazioan eta babesean fokua jarriko duen justizia eredu aldarrikatzen dute. “Min sortzailearen ardurara eta birgizarteratzea bilatzeaz gain, ez errepikatzea bermatuko du. Ez dugu nahi zigorraren paradigma hutsa birsortzen duen (in)justizia. Horretarako, funtsezkoak dira emakumeon sinisgarritasuna, testigantzen balioa eta jazotakoaren aitortza”.

Idatzia bere osotasunean topatuko duzue noaueus web orrian.

Udal-gobernu taldea: “Sendo adierazi nahi dugu Usurbil feminista baten aldeko aldarrikapena”

“Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Usurbil feminista baten aldeko aldarrikapena, eta dagozkigun konpromisoak geure egiten ditugu bide horretan. Eta argi dugu, era berean, zeregin hori mugimendu feministarekin elkarlanean egin behar dugula”, dio azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira, udal-gobernu taldeak plazaratu duen adierazpenak. Astebururako iragarriak zeuden deialdiekin bat egin dute.

Adierazpenak gogoan hartu ditu, azken urtean Euskal Herrian hil dituzten 9 emakumeak, “aspaldiko estatistikarik dramatikoena utzi du indarkeria matxistak”. Arazoa ordea sakonagoa dela ohartarazten

dute. Indarkeria matxistak hildako emakumeen kopuruetatik haratago, besteak beste arlo judizialean, justizia patriarkalarekin amaitzeko beharra nabarmentzen du, emakumeek “jasaten duten biktimizazioa eta kulpabilizazioa” agerian utzi ostean.

Zeharkako lanketa

estrategiko eta iraunkorra

Arazoaren sustraletara jotzea ezinbestekoa dela gaineratzen du. “Erakundeok horren ardurara dugu, izan ere, indarkeria matxistak sistema sozial, ekonomiko eta sinboliko honetan du jatorria. Eta sistema hori injustua da; aukera berdintasunik ez du bermatzen, emakumeak menpeko estatus batean kokatzen ditu eta indarkeria matxista erabiltzen du tresna sistemi-

ko gisa”.

Emakumeek egunerokoan pairatu behar duten denetari-ko indarkeria adierazpenekiko tolerantzia eta inbisibilizazio handia dagoela salatzen du adierazpenak. Horregatik, “arlo guztietan eta indarkeriaren adierazpen guztien gaineko zeharkako lanketa estrategikoa eta iraunkorra bultzatzea funtsezkoa da”. Hasteko indarkeria mota guztiok azaleratu, normaltasunez hartu ez eta “gero erroan, jatorrian esku-hartu behar dugu, egungo orden soziala eraldatzeko urratsak eginez”.

Arlo guztietan, denon erantzukizuna izanik, gizarte osoko eragileek elkarlanean, “hala egiten ez badugu, indarkeria matxistari eusten jarraituko dugulako”.

Aztarrika gazte mugimendua jaio da

Azken hilabeteotan bideratu duten sukalde lana plazaratu dute. Jaio da Aztarrika, Usurbilgo gazte mugimendua. Azaroaren 23an, Gazte Egunaren bezperan aurkeztu zuten Sutegin egin zuten asanbladaren bidez. Ondoko argazkia ikusita argi denez, deialdiak nabarmen-tzeko moduko arrakasta izan zuen. Gazte mugimenduko bi kiderekin bildu da NOAUA!

NOAUA! Noiz hasi zineten aztarrika?

Usurbilgo gazte mugimendua: Prozesu oso luzea izan da. Talde baterako deia egin ziguten. Pertsona batzuk formazio saio batzuk jaso genituen. Gero gazte asanblada sortzea erabaki zen. Prozesu bat abiatu genuen eta bertan ondorioak aterata, hilabetez hilabetezko dinamikari heldu genion. Hilabetero gai baten inguruko lanketa egin dugu. Jende anitz biltzea lortu dugu eta horren ondorioz dator oraingo gazte mugimendu honen aurkezpena. Mugimendu barruan ildo ezberdinak egongo dira.

Ildoak gaika antolatu dituzue?

Gaika. Aurreko sei hilabeteetan hainbat gai landu ditugu. Lau anitzenak, jendea gehien erakarri dutenak hautatu ditugu: burujabetza, aisialdia, euskara eta kultura eta emakumeen gune bat. Beste ildoak orain sortu dira, baina emakumeen gunean lanketa egiten gabilta duela urtebetetik. Neska askok herrian beren eremua ez zutela aurkitzen ikusten genuen. Gure eguneroko gauzetaz, edozertaz hitz egiteko konfiantza gune bat sortu nahi genuen emakume horientzat.

Helburua gunea bera zen.

Ez du izan egitura zehatz bat. Batean batek nahi zuen sexu-



“Hilabetero gai baten inguruko lanketa egin dugu. Jende anitz biltzea lortu dugu eta horren ondorioz dator oraingo gazte mugimendu honen aurkezpena”, Aztarrika Gazte Mugimendutik aditzera eman digutenez.

AZTARRIKA

“Aurreko sei hilabeteetan hainbat gai landu ditugu.

Lau anitzenak, jendea gehien erakarri dutenak hautatu ditugu: burujabetza, aisialdia, euskara eta kultura eta emakumeen gune bat.

Beste ildoak orain sortu dira, baina emakumeen gunean lanketa egiten gabilta duela urtebetetik”

logiari buruz hitz egin, beste batek bere barruan zituen beldurrak askatu, beste batek harremandu... Gaion inguruan ostiraletan 44 pertsona ere bildu izan gara. Adin ezberdinetako koadrila ezberdin piloa elkartzen ginen. Herrian mutil denak batera ibiltzen dira, eta bere zaletasunen arabera planak egiten dituzte. Guk hori

ez genuen. Horregatik, kafe tertulierekin gure helburu nagusia gure arteko konfiantza sortzea eta gertutasun hori lortzea zen. Gero, planak egiteko, alternatibak izateko. Dena oso natural joan da eta oso gustura gaude. Neskentzako gunea da soilik. Kafe tertulia izena du.

Guneak zer nolako ekarpena egin die parte hartzaileei?

Emakume-neska bakoitzari ekarpen desberdin bat egin dio. Aurrekoan adibidez, aurreten egindakoaz eta aurrera begira egin nahi dugunaz hitz egiten egon ginen. Kafe tertulia gazte mugimenduaren baitan kokatzen dugu baina oso independente doa.

Zuen kafe tertuliara animatzen denak non eta noiz aurkituko zaituzte?

Ez dago maiztasun ezta data finkorik ere. Aztarrikaren Instagrameko kontutik zabaltzen dugu deialdia. Bai kafe tertuliarena eta beste ildo guztien inguruko deialdiak ere.

“Burujabetza zerotik hasten den ildo da”

NOAUA! Ez dauden alternatibak eskaintzera dator gazte mugimendua ezta?

Usurbilgo gazte mugimendua: Aisialdian, jarduera fisikoak, jolasak, mendia... Usurbilgo kirol aukeretatik at dagoen eskaintza, jende asko baitago kirola egin nahi eta alternatibarik ez duena. Edo lehiakorra ez den eredu berri bat aportatu nahi diona herriari. Pertsona batek nahi badu musika talde bat sortu, bertso egun bat antolatu, poesia errezitaldia eskaini... euskara eta kulturaren eremuan bere tokia izango du. Burujabetza zerotik hasten den ildo da. Formakuntzara bideratua. Erraustegiaren inguruan informatu, Usurbilen dauden etxebizitza hutsak aztertu... Gaiak aztertu eta ondorioak ateratzeko.

“Gazte mugimendua irekia dago. Norberak nahi duen konpromiso maila hartuko du”

NOAUA! Norberaren konpromiso maila askea bultzatu nahi duzue.

Usurbilgo gazte mugimendua:

Bai, dudarik gabe. Guri ere pasa izan zaigu konpromiso gehiegi eskatu izan digula zerbaitek eta erre egin gara. Edo justu kontrakoa, zerbait gehiago egin nahi izan eta jendeak ez zuela ezer egiteko pausorik ematen eta orduan pixka bat erdizka geratzen ginen. Gazte mugimendua irekia dago. Norberak nahi duen konpromiso maila hartuko du. Jendeak nahi duenean, eta nahi duen gauzak egitera ager dadila. Hurrengo bileretara ager daitezke gazteak, inongo konpromisorik gabe.



“Gazte mugimendua irekia dago. Norberak nahi duen konpromiso maila hartuko du”. Larunbatean Gazte Eguna ospatu zuten eta afalostean Larrian Gozo taldeak jo zuen. Soinu-proban atera genien argazkia.

Usurbilen gazteak non ziren galdetu izan da. Hainbat argi denez, hemen zaudete. Gazte mugimenduak zer nolako ibilbidea izatea aurreikusten duzue?

Gazteak bizirik gaude eta oraindik eta gehiago ikusiko zaigu aurrerantzean. Presta dadila herria. Beti ere ekintzaren bat egitean herrian antolatze-

AZTARRIKA

“Euskaraldian adibidez, txapa banaketan laguntzen aritu gara. Hartuean bat sortu nahi genuke herrian, gazte mugimendu bezala”

ko asmoa dugu. Herrian gazte mugimendua ikusi dezatela, ez gaudela etxean ikasten edo larunbatero parrandan.

Herriari zer ekarpen egitea nahi zenukete?

Herriko beste edozein antolakuntza taldeek zerbait beharko balute gazteen aldetik

edo gurekin harremanetan jarri, beste zerbait nahi dutelako antolatu eta gazteak barruan egotea nahi dutelako, lagundu. Euskaraldian adibidez, txapa banaketan laguntzen aritu gara. Hartuean bat sortu nahi genuke herrian, gazte mugimendu bezala.

“Lagunak nahi ditugu, ez koadrilak”

NOAUA! Gaztea adin tarte nahiko zehatz batekin lotzen da. Horrekin hautsi nahi duzue.

Usurbilgo gazte mugimendua:

Nahi duena etor dadila ekarpena egitera, oso interesgarria eta aberasgarria izango da denontzat. Harremanak sustatu nahi ditugu. Usurbilen bizi gara, denok bistaz elkar ezagutzen gara baina ez benetan.

Koadrilismoak indar handia du oraindik.

Eredu hori hautsi nahi da. Koadrila ez baduzu, non dauka lagunak? Lagunak nahi ditugu, ez koadrilak.

Parte hartzeko deia beraz, gazte sentitzen den orori.

Bai, gazteak. Apiriletik irailera egiten ditugun ekintzetan adin tarte oso zabaleko herritarrak izan ditugu. Eragiten zuen

baita ze ekintza antolatzen genuen. Ekintza batzuetan 45 eta 15 urtekoak izan genituen.

Gazteentzako aisialdi eskaintzan dagoen hutsunea bete nahi duzue ezta?

Lau ildo horiek finkatuta, jendeari askatasuna emanda lortuko dugula uste dut. Alternatibak eskaintzen ari gara gazteei. Guk bere unean izan genuen eta eskertzen da,

aportatu diguna asko izan da. Orain besteei eman nahi diegu. Eta etorkizunean, guk uzten dugun unean beste batzuk bideari jarraipena ematea nahi genuke. Guk ere motibazio hori transmititzea beraiek ere gauzak egiteko.

Informazio gehiago:

Instagram: Aztarrika.

Duintasunez bizitzeko mobilizazio fase betean

Haiengatik eta atzetik datozenengatik, guztiontzako etorkizun hobe baten alde ari dira borrokan. Duintasunez bizitzea dute aldarri nagusia eta egun mobilizazio fase betean dira txoko askotan. Aurrerantzean baita Usurbilen ere. Hiru jubilatutako elkarteak eta Duina mugimendua urrian hasi ziren pentsio duinen alde mobilizatzen plaza ateratzen. Ostegun honetarako finkatu dute hitzordua berriz. Aurrerantzean hilabetero herritarrek bizitza duin baten aldeko borrokara batzeko deia egiten digute Gure Pakea elkarte-ko zuzendaritza taldeko kide Manu Aranburu, Damaso Lizaso eta Manolo Agrak NOAA!ri eskaini dioten elkarrizketa honetan.

NOAUA! Urrian bezala, azaroaren 29rako berriro mobilizatzen deitu gaituzue. Zergatik erabaki duzue berriz plaza ateratzea?

Damaso Lizaso: Usurbilen, pentsiodunen mugimendu honetan ia apenas jenderik mugitzen den. Baina batzuk etorri zaizkigu esanez ezin dutela pentsiotik kobratzen duten 400 euroekin bizi. Hori ikusita hemen nabari da zerbaiten falta badela. Gabezia hori egon eta mugimendurik ikusten ez denez, ia jendea mugiarazten den. Kostatzen ari da. Noiz edo noiz pentsatzen hasi beharko du jendeak, norbera ez bada



“Pentsatzen dugu ehunka izango direla pentsio baxuekin, 400-600 euroekin. Eta horrekin ezin da bizi”.

MANOLO AGRA

“Une oso garrantzitsua bizi dugu pentsioen gaian. Bizitzaren kostua pentsioen balorea baino askoz garestiagoa da”

mugitzen, zaila izango dela hemen ezer lortzea.

Arazoa denona da ezta?

D. L.: Bai, ez pentsiodunena bakarrik, atzetik datozen guztiena baizik. Atzetik datozen guztiak ez badira mugimendu hau bultzatzen jartzen, gero berriro lanean hasi beharrean bakar bakarrik geratuko dira. Zaila izango da.

Manu Aranburu: 65 urtetik gorako 1.026 gizon emakume dago Usurbilen. 1, 2 eta 3 mailako mendekotasun egoeran 300 gizon emakume daude. Hori asko da. Haiei bizitza duina, askea eta kalitatezkoa izateko tresnak jarri behar dizkie administrazioak, gure elkarrekin laguntzaz. Ez dira ahaztu behar. Isilean eta ezkutuan daude, gure bizilagunak dira. Askok eta asko bakarrik daude. Pentsio baxuak dituztenen kopuruak ez ditugu eskuartean. Eskatzekotan gara. Pentsatzen dugu ehunka izango direla pentsio baxu horiekin, 400-600 euroekin. Eta horrekin ezin da bizi. 1.080 euroekin bizitza duinagoa egin dai-

teke, baina 400-600 euroekin ezin da bizi modu horretan. Horrek justizia eskatzen du. Dirua egon badago, aurtengo aurrekontuan 631 milioi euro gehiago jaso da EAE-ko hiru lurraldeetan.

Manolo Agra: Une oso garrantzitsua bizi dugu pentsioen gaian. Bizitzaren kostua pentsioen balorea baino askoz garestiagoa da. Horrez gain, gutxieneko pentsio gisa ordaintzen ari direna desastre hutsa da. Mobilizazioekin akordioetara heldu nahi da; 1.080 euroko gutxieneko pentsioak izatea, pentsioak KPIra lotzea. Eskaera justua da, justifikazioa gai honen alde borrokatzen segitzeko.

“Eskaera erreala da, gutxieneko bizi kalitatea izateko”

NOAUA! 1.080 euroren eskakizuna ezaguna egin zaigu. Zergatik 1.080?

D. L.: Hori gutxieneko kopurua da. Esaten da hori ez dela konponbidea, bizimodu honetan justu bizitzeko. Erosahalmena geroz eta atzerago geratzen

ari zaigu. Zergatik? Kobratzen ez baduzu, ezin duzu gastatu. Hori ahalbidetzeko, 1.080 euro ez, gutxienez 1.200 euro beharko lirateke.

M. Aranburu: Labur esanez, lan duina eta gutxieneko 1.200 euroko pentsioa eskatzen dugu.

65 urtetik gorako 1.026 usurbildar daudela aipatzen duzue. Egoera kezagarriagoa izan daiteke etorkizunean, adin tar- te honetako herritar kopurua hazten joango baita?

M. Aranburu: Handitu egingo da. Diotenez, 2050. urterako

Gipuzkoako biztanleriaren %40a izango da. Orduan behar beharrezkoa da diru hori, ez da gehiegi eskatzen. Eskaera erreala da, gutxieneko bizi kalitatea izateko jendea txukun bizitzeko jarri daitekeena.

“Usurbilgo hiru jubilatuko elkarteak bateratuak gaude”

NOAUA! Hainbat eskubide izateko borrokan aritutako belaunaldikoak zarete. Ustez konkistatuak ziren hainbat eskubide betearaziak izateko berriz ere kalera mobilizatzera atera beharrean aurkitu zarete. Atzetik gaitzenak ez dugu zuen belaunaldiak borrokatu eta irabazitakoa zaintzen asmatu?

D.L.: 44-45 urte kotizatuak ditugunok lehengo geneak oraindik gure gorputzean bizirik ditugu. Orduan gu atera egiten gara plazara. Pena ematen du, ezer izan gabe geratu daitezkeen horiek guztiak, oso aurpegi alaiarekin ikusten direla oso urrutitik. Horrek emango du buelta. Eguraldi onaren ondoren txarra zenbat etorriko den ezin da jakin, eta aurretik lan eginda eguraldi txarrerako ez bada prestatzen, horixe gertatuko zaie oraingo belaunaldiei. Espainian hainbeste lapur, milaka milioiak batera eta bestera eman dituzte, bankuak erreskatatzeko pentsiodunen kaxatik dirua eman diete. Hemen lapurraren mende garen urteotan, gu geroen eskubideak eskatzen hastea esajeratzea dela iruditzen zaie. Baina bizi



“Gipuzkoan AGIJUPENS Gipuzkoako jubilatuko eta pentsiodunen elkartearen barruan gaude”.

HERRI MAILAKO NEURRIAK

“Tutoretzapeko apartamentuak eskatzen ditugu. Udalarekin saiatzen ari gara hori sustatzen”

ezinik jartzen hasten denean pertsona, atera egin behar du kalera.

Bizitzeko duintasuna da eskatzen ari zaretena.

D.L.: Hori da eskatzen dena, eta hortik ez gaitzateela baztertu. Hauteskundeak datozen garai honetan, kontu handiz ibili

behar dute. Gurekin ez badute estropezu handi bat egin nahi, gurekin egon behar dute.

Pentsiodunen Gipuzkoako marxaren baitan, hainbat eskaera biltzen zituen gutuna helarazi zenioten Udolari. Erantzunik jaso duzue? Eskaeron artean zein dira urgentziatzekoak?

M.A.: Eskaera horietan adineko jendea babestu behar dela esaten da. Usurbilen erroka handia dugu; Kalezarren nagusientzako erresidentzia erakitzea. Hori urgentea da, zeren une honetan 12 usurbildar daude herritik kanpoko zentroetan, beste 12 erresidentzie-

tan sartzeko itxarote zerrendan daude. Eta beste 6-8 izango dira mendekotasun horren barruan azken urtean. Une honetan 30 plaza behar ditugu erresidentzia batean. Kalezarren erresidentziaren proiektua aurrera doa baina mantso. Hori azkartu egin behar da.

M.A.: Tutoretzapeko apartamentuak eskatzen ditugu. Udalarekin saiatzen ari gara sustatzen, Usurbilentzat hain interesgarria den egitasmoa. Eskari handia dago. Gai hau negoziatu behar dugu. Horretan gaude, bildutako herriarren sinadurekin borrokan amaierara heltzeko. Badirudi orain, bide onetik doala gaia.

Herri mailan dauden 3 jubilatuko elkarteak elkarlanean jarri zaituztete gaiok.

D.L.: Gu hilero biltzen gara Aginagakoekin eta Santueneakoekin. Nire betebeharrak hala da, haien izenean joaten naiz probintzia mailako bileretara zer egiten dugun azaltzera. Bateratuak gaude hiru elkarteok. Oraitxe Aginagan ere Arrate taberna ireki dute berriz eta hori albiste ona da guretzat.

“Guztia egungo nahiz etorkizuneko pentsiodunen onurarako da”

NOAUA! Ez gaude ohituta baina konponbideak belaunaldi arteko elkarlana eskatuko du.

D.L.: Iaz, urte amaieran belaunaldi arteko topaketa egin genuen Ziortzako gazteekin. Artzabalera etorri ziren. Bi saio egin dira eta esperientzia oso politak izan ziren. Kalera atera, gazteak, umeak zure izenez deika hastea, nolabait elkarbizitza hori sortzen asmatzea oso polita da. Hor ia nahasten garen, zahar, gazte, ume. Ia bizimodu postura hori nola sortu asmatzen dugun.

Duintasunez bizitzea denon-

tzako ari baitzarete eskatzen?

D.L.: Guretzako bakarrik eskatuko bagenu, gurekioak izango ginateke. Gu zabalik gaude. Jubilazio handi samarra izan edo ondo bizitzeko adina dutenei ere zerbait esan nahi genieke. Maila onean bizitzeko zortea izan badute, zergatik ez esku bat bota okerrago bizi direnei? Denon lana da. Artzain batek ez du ardi bakar batentzako lan egiten, artalde osoarentzat baizik. Eta galduta doazen ardi horiek pilatzen, hemen horretan lan handia dago.

M. A.: Guztia egungo nahiz etorkizuneko pentsiodunen

onurarako da. Mobilizazioetan parte hartzera joaten den jendeak baino gehiagok parte hartu beharko luke, azken finean denon pentsioen interesak defendatzeko baita.

Epe motzean ez da aurreikusten egoera goitik behera aldatuko denik. Halako mobilizazioen beharrak egoten segiko du.

M. A.: Gipuzkoako herri askotan egiten ari dira mobilizazioak, hiriburuetan astelehenero. Borrokan segi behar dugu. Gobernu bat erori bada eta beste batek erori behar badu,

zer egingo diogu. Gu gurea defendatu beharrean gaude.

Datozen deialdiak

Azaroak 29, osteguna

19:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Deitzaileak: Aginaga, Santuenea eta Usurbilgo jubilatuko elkarteak eta Duina mugimendua.

Abenduak 15, larunbata

Pentsio duinen aldeko manifestazioak hiriburuetan. Gipuzkoakoa Donostian.

Usurbil eta usurbildarrak Durangoko Azokan

200 kultur ekitaldi, 247 erakusleho edota 439 nobedade dakartza, abenduaren 5etik 9ra ospatuko den 53. Durangoko Azokak. Tartean Usurbilekin lotura dutenak edo usurbildarrek sorturikoak. Haien produktuak salgai izango dituzue azokan, eta hainbat ekitaldietan parte hartzekoak dira. Usurbil eta usurbildarrak aurtengo azokan:

Abenduak 6, osteguna Ahotsenea solasaldiak

■ 12:30-12:55 Ugaitz Agirren *Tximeletak bizkarrean* (Susa) nobelaren aurkezpena. “Bertan, istorioaren sortze prozesua azaldu eta pentsarazi nauten ideietan edota kontzeptuetan sakonduko naiz: historia, identitateak, harremanak... Bestetik, estiloaren inguruko gogoetak eta eraginak azalduko ditut”.

■ 18:00-18:25 Jakoba Errekondoren eta Antton Olariagaren eskutik, *Landareak Lantzen* 2019ko agenda-liburu berriaren aurkezpena.

Sagu Ganbara

■ 16:00-16:30 Yolanda Arrieta idazleak, *Bizenta Txiki* eta *Mari Xor* (Denonartean) li-



Yolanda Arrieta Durangoko Azokako Sagu Ganbara gunean izango da abenduaren 6an, arratsaldeko 16:00etan hasita.

ABENDUAREN 6AN

Ugaitz Agirre
Ahotsenea-ko solasaldien
gunean izango da
abenduaren 6an.
Tximeletak bizkarrean
(Susa) nobelaz jardungo
du eguerdiko 12:30ean

buruen kontaketa egingo du Areto Handian. 5-12 urtekoentzat.

Abenduak 7, ostirala Irudienea

■ 11:30-12:30 Askekintza-
ren “Gurean” dokumentala.
“Jaietan animaliek jasaten

duten “zapalkuntza” jaso du Askekintzak dokumentalean. Animaliekiko harremanari buruzko hausnarketa hauspo-
tzea du helburu. Horretarako, Euskal Herriko hainbat jaietan irudiak bildu dituzte, eta jai horietan animaliak nola erabiltzen diren gertutik erakutsi nahi izan diote ikusleari”. Tartean, Usurbilgo jaietako irudiak ageri dira.

■ 18:00-18:45 Aginagan eta Usurbilen grabatutako “Oreina” filmean oinarritutako 3 laburmetrai.

Abenduak 8, larunbata Areto Nagusian

■ 15:00-15:30 “Dantza” filma-

ren inguruko mahai-ingurua. Hizlariak: Telmo Esnal eta Juan Antonio Urbeltz. Gogoan izan, Orbeldi D.T.-k parte hartu zuela filmaren grabazioetan.

■ 16:00-16:30 Ilargiaren Egutegiari buruzko aurkezpena eta kontsultategia. “Jakoba Errekondoren eskutik baratzea, fruitu arbolak eta basoko lanak. Pello Zabalak aukeratutako esaerak. Xabier Akizuk ilargiaren eraginaren saioak eta *Ilargiari* begira, Maria Thunen egutegi biodinamikoarekin osatua”.

Irudienea

■ 19:00-19:45 “Dantza” dokumentalean oinarriturako dokumental sail baten lehen atalaren aurkezpena.

Informazio gehiago:
durangokoazoka.eus

Yolanda Arrieta, abenduaren 12an Sutegin

“Yolanda Arrietak bere azken lanak aurkeztuko ditu, haur eta heldu, familia giroan: “Kuttun-kuttunak”, “Bizenta-Txiki” eta “MariXor”. Abenduaren 12an 18:00etan Sutegi udal liburutegian.

Bertsoa eta marrazketa tartekatuko dituzte Harria Hitz bisita gidatuan

Herriko kultur ondarean barenaren Usurbilgo Udalak antolatzen dituen bisita gidatuen edizio berria larunbat honetan (abenduak 1), Mikel Laboa hil zela 10 urte beteko diren egun berean. Ohi bezala, urtero moduan, Mikel Laboa entzungai jarriko du Usurbilgo Udalak, bere izena daraman omenezko plazan. Bertatik igaroko da, 10:00etan frontoian abiatuko

den Harria Hitz bisita gidatua ere.

Bidelagun berriekin oraingoan; Eli Pagola bertsoan ariko da eta Unai Gaztelumendi marrazten. Honatx iragarri den egitaraua, izena aurrez eman doan!

Abenduak 1, larunbata

■ 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
■ 10:05 HARRIA HITZ bisita

gidatua herrigunean (Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa plaza, Tapiaren murala, Askatasuna Plaza, Sagardoaren Monumentua).

■ 11:15 TTXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita.
■ 12:35 Zumeta Arte Estudiora bisita.
■ 13:45 Amaiera.
■ Oharrak:

-Joan-etorriak egiteko furgoneta zerbitzua egongo da.

-Azalpenak euskaraz eman-
go dira.

-Bisita doakoa izango da.

Informazioa eta erreserbak:

688 818 017 / info@kultour.pro (gehienez 23 lagunentzat lekua).

Antolatzailea:

Usurbilgo Udala.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Usurbilen

Argiaren Usurbilgo lagun taldeak antolatuta, emanaldi bikoitza abenduaren 15ean (larunbata), 16:00etan eta 18:30etan Oiardo Kiroldegian. Sarrerak 7 eurotan salgai aurrez Bordatxo tabernan eta Marije arropa dendan. Egun berean 8 euroren truke Kiroldegian bertan. 12 hila-betera arteko hurrek sarrera doan.



'Musua' diskoa eskainiko dute abenduaren 15ean Oiardon. Argazkia: Txintxarri.

